



Astekaria



elgoi



Gorren mundu isila

IRAKASLE ELKARTEA

ZEZENBIDE

San Frantzisko 43 • ☎ 74 27 20 • ELGOIBAR


auto-eskola

*luzena ematean
%10eko beharapena
Gazte Txartelarekin*





San Frantzisko, 43 - Tel. 74 41 99 - ELGOIBAR



Behera

penak

astelehenetik aurrera

%20



ALKONDARA, PRAKA,
AMERIKANA ETA PUNTOZKO
ERROPATAN, ... % 50era ARTEKO
BEHERAPENAK

%50



ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,

Jasone Osoro.

PUBLIZITATEA:

Myriam Aldazabal.

MAKETATZAILEA:

Maite Rementeria.

ADMINISTRAZIOA:

Amaia Martin,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldeggi, Xabier

Ansola, Nekane Aranburu,

Pello Arrieta, Juan Mari

Elustondo, Ina Garagarza,

Ane Goikoetxea, Amaia

Gorostiza, Juanito

Gorostiza, Maite Iriondo,

Edu Iriondo, Alberto

Iriondo, KOKOE, Imanol

Larrañaga, Javi León, Juan

Mari Mendizabal, Milagros

Oiarzabal, Benantzio

Otaegi, Aitor Zabaleta,

Julen Zabaleta, Deñe

Zabalo, Lucia Zubiaurre.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.700 ale**LEGE GORDAILUA:** SS-

1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



luzna fundazioa
Fundación luzna



Janaria

Janaria gure eguneroko bizitzaren parte garrantzitsu bat da dudarik gabe. Eguneroko lau otordu egiten ditugu: gosaria, bazkaria, askaria eta afaria. Hori hain gogoko eta ezaguna dugun hamaiketako kontuan hartu gabe. Beraz, bizitzako alor honen ardura dugun etxeokoa eta gainontzekoek badugu esku bete lan eguneroko langintza honetan.

Adituek diotenez, ohitura orokorreki dagokienez, Espainia eta Frantziako tuki batzuetako antzekoak dira gureak. Beharbada gu bereizten gaituena janariaren gozatzeko dugun gogo da.

Euskal Herrian bai etxe, bai elkarte bai jatetxeetako sukaldeetan ordu asko ematen dira janaria prestatzen eta mimo handiarekin egiten da lan hau. Hala ere, janaria kontu gehiagorekin prestatzen dutenak etxeokoa nagusiak direla esango nuke. Diotenez, gure ohitura onenak mahaian lasai esertzea, poliki jatea eta janaria ondo txikitzea dira. Jateko ordu finko bat edukitzea eta mahaian familia elkartzeari ere euskaldunok dugun ohitura on bat omen da. Hala eta guztiz ere ohitura hauek guztiak piskanaka-piskanaka galduz doaz eta mantendu beharrekoak dira.

Nekazal guneetan hiruguneetan baino hobeto jaten dela diote, batez ere,

barazkiak egunero jaten dituztelako eta normalean bertan hazitako produktuak izaten direlako. Nekazal gune hauetan txerriki gehiegi jateko ohitura omen zegoen, baina azken urteetan badirudi zuzentzen ari den zerbait dela.

Hiriguneetan denboraren arazoa dago, batez ere, lanorduen eraginez, eta nekazal produktuak kanpokoak izaten dira askotan.



Badirudi batzuk ados jartzen direla zera esaterakoan: egunero har daitezkeenak esnea, esnekiak, frutak, barazkiak, zerealak, ogia eta patata direla eta asteroko maiztasunarekin, berriz, arroza, pastak, potajeak, arraina, okela...

Hala ere, jan kontu hauek asko aldatzen dira lekuaren arabera, askotan entzun baitiet Ingalaterratik etorritako gazteei hango ohiturak hemengo ezberdinak direla esaten. Dirudenez, oso gutxi jaten dute eta oso denbora gutxi dedikatzen diote sukaldari.

Agian gehiegi jateko ohitura dugu. Nolanahi ere, ditugun ohitura onekin jarraitu beharko dugu jatorduak patxadaz eta familia giroan gozatzuz. Hala ere, ohitura txarrak zuzentzea onak mantentzea bezain ona da; beraz, honetan ere esfortzu bat egin beharko dugu.

Ane Goikoetxea

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

-"Udalak ba al du Santa Klara-ko Plaza eta baldosak konpon-
tzeko asmorik?" Alkatearekin
egon gara eta uren obrak amaitu
ostean baldosa eta plaza txukun-
duko dituztela adierazi digu.



KEXAK

"Zergatik ez duzue inoiz egin
ETaren biktimei buruzko erre-
portaia handi bat? Hots, Elgoibar-
ko enpresariei egindako meatxuei
buruzkoa edo-eta Patxi Zabaleta-
ren alarguna eta seme-alabei
buruzkoa. Gogora ezazue
BARREN herriko astekaria dela
eta ez gutxiengo baten aldizkaria".



TXALOAK

"Herri Eskolako **7. mailako**
ikasle eta gurasoei: poztasun
handiz jaso ditugu plakak eta
opariak. Mila esker izan duzuen
adeitasunagatik. Herri Eskolako
irakasleoa".

Okerrak zuzentzen

Bide Egin-en Bergara eta Ermuko
ikaslerik ez dago, joan den aste-
erreportaian esan bezala. Deba
Beheko Udalek eta hauetako
herritarrek bakarrik hartzen dute
parte: Elgoibar, Eibar, Soraluez,
Mendaro, Deba eta Mutrikuk.

Argitxo irratiko entzule agurgarriak

Azenaldi honetan somatuko
duten Argitxo Irratian ez
ditugula "Musikaz Blai"ko programa
berriak jartzen. Honen arrazoia oso sin-
plea da:

Jadanik Argitxo Irratian bi urtez
ibili izan naiz musika programak egiten
eta azkenaldi honetan ikasketak, nik
praktikatzen ditudan kirolak eta beste
arrazoi asko direla medio, ez dut irratira
joateko astirik edukitzen eta horregatik
nago Argitxo Irratia uztera behartuta.
Ez dut uste betirako utziko dudarik
baina nire eginbeharrak burutu bitartean
ezin izango naiz programak egitera
buelatu. Ni faltatu bitartean espero dut
Argitxo Irratian nik utzi dudan lan
entretengarria beste norbaitek hartzea
eta irratia aurrera jarraitzea beti beza-
la.

Hala ere, "Musikaz Blai" programa-
ren jarraitzaileek pozik jarraitu dezake-
te zeren "Musikaz Blai" programak
bere lanean jarraitzen du baina oraingo-
an Zazpiki Irratian, 107.6 FMan, larun-
batero, gaueko 10,30etatik 12etara.
Oraingoan musikaz gain debateak, gai
interesgarriak, asteko agenda eta beste
gauza interesgarri batzuekin etorriko da
gure irratsaioa, A.M., U.A. eta J.S. par-
taide eta zuzendari izango dituzuelarik.

Besterik gabe agurtzen naiz, lagun-
du didaten guztiei eta nirekin lan egin
dutenei eskerrak emanaz, batez ere San
Bartolome Ikastolako zuzendari, irakas-
le eta langile guztiei nirekin hain ondo
portatzeagatik. Agur denoi eta beste bat
arte.

J.S.

"Asti" lagunari

Hiru hitz Asti zein zen adierazte-
ko. LAGUNA, LAGUNA,
LAGUNA. Beste hiru hitz? LEIALTA-
SUNA, ADISKIDETASUNA, ELKAR-
TASUNA. Horrelaxe ikusten dugu bere
lagun izateko zortea izan dugunok. Bere
gaixotasunean inoiz ez kexa hitzik; ez
"gaizki nago", ez "mina daukat", ez
horrelako hitzik. Aitzitik, "Anoetara joan
behar dugu partiduren bat ikustera,
Kurutz. Giller, afari bat egin behar dugu
soziedadean. Alberto, Elena, piloto kar-
neta ateratzen duzunean Donostiako por-
tura joan behar dugu elkarrekin su artifi-
zialak ikustera. Amaia, irakatsiko dizut
nik kotxea gidatzen eta loteria tokatzen
bazait Hernanin pisu bat erosiko dut, nire
lagunentzat eta lagun borrokalarientzat.
Hori bai herria, beti pixa usaina elizako
arkupeetan; hor bai egiten dituztela seku-
lako festak! Elgoibarren horrelako gazte-
ria edukiko bagenu, akabo jauntxo-
en prepotentzia". San Lorentzo ere atsegin
zuen. "Haiek bai meriendak. Elenak San
Lorentzoko koadroan zerua lainorik gabe
ager dezala". Eta pala partiduak, "Pablo
hamar tantu ematen dizut, beno ni ezke-
rrekin eta zu eskumarekin".

"Atera Ballentines txupito bat gaur
Galindo atxilotu baitute". Espero dugu
zauden tokian, martxarako MADNESS,
kotxerako LOU REED eta etxean egote-
ko VIVALDI edukiko duzula. Eskerri-
kasko zure lagun izateko aukeratu gaitu-
zulako.

Kurutz Castrillejo

Uztailean ordutegi berria

BARRENeK ordutegi berria izango
du uztailean zehar: goizeko 9etatik
3ak arte irekita egongo da eta
arratsaldetan itxita.

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK





Aste honetako erretratua **Jose Gurrutzagaren** bidez eskuratu dugu. Merkatu plazako enparantzan ateratakoa da 1948. urtean. Argazki bi neska gaztea hauek Mauxitxa baserriko **Pakita Ansola** eta **Gorriñagako Maria Ansola** (†) dira, biak Lizun-

dia bailarakoak.

Goizean goiz jaikita, astoak ondo kargatuta genero onarekin, Mausitxako gataiarekin batez ere, azokara etortzen ziren salmentara. Lana amaitutakoan, hamarretakoa egin ondoren, etxe aldera abiatzen ziren, kantuan alai.



Ekainaren 8an, 37 urte zituela, hil zen
IÑAKI INTXAUSTI LARRAÑAGAren sendiak bihotzez
ESKERTZEN DITU JASOTAKO DOLUMINAK,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Gorreria, ikusi ezin den ezintasuna

Mila pertsonatik bat gorra da jaiotzez. Ezintasun ikustezin hau ezezaguna da oraindik gizartean. Baina, telebista ikusi arren, entzuterik ez bagenu?, medikura joan eta arazoak izango bagenitu?, gure seme-alaba lagunekin jolastu ezinik geratuko balitz elkar ulertzen ez dutelako? Horrelako egoerak dira gorrek bizi behar izaten dituztenak. Halere, gure artera ekarri ditugun elgoibartarren artean, desberdin izate horren gaineratik, pertsona zorionsuekin egin dugu topo. Eurekin izandako esperientziak ikasteko asko daukagula erakutsi digu. Entzuteko gai izan arren, askotan ez baitugu aditzen.

I bai Etxabek 14 urte ditu eta Urko Vitoresek 8. Jaiotzatik dira gorrak. Jose Luis Vitore-

zabalako kasurik eitzen”. Detaile txikiak ikusi eta, froga bat eta beste egin ondoren, haurrak gorrak zirela jakin zuten. “Horrelako gauza bati

du Ibairen amak.

Elkar ulertzeko, zer?

Bergarako Arans-Gi gorren elkartera joaten dira Ibai eta Urko, “han zeinuen hizkuntza eta hitzegiten ikasteaz gain, eskolak ere jasotzen dituzte”, azaldu digu Jose Luisek. Gurasoekin eta inguruko jendearekin komunikatzeko ez dute inolako arazorik. Urkoren gurasoek zeinuen hizkuntza badakite eta Ibai ezpainak irakurtzen moldatzen da. Beste haurrekin erlazionatzeko orduan badaude hainbat oztopo, “gurasoek ez badira saiatzen erre hitzegiten, ezpainak irakurtuz, ezinezkoa da elkar ulertzea”. Gorrek beti behar dute interpretate bat”. Urkoek berlarrian aparatua darabilena gehienetan traba egiten dutenak itzali egiten du, berarekin elkarrekin eramango. Azken finean, “gurasoak berarekin itsatsita irrati distortsio-eremateak bezala da eta”, azaldu digu Jose Luisek.

elkartera arte Bergarako Arans-Gi gorra joango dira ikastera, “gurasoek bereziak dituzte eta horretarako erantzitzen dira”. Halere, beste haurrekin baino gehiago kostaguzak barneratzea, “enformazioa etengabean jasotzea”, era guztietakoa. Gorrek bizi behar dute eta horrek eragina du bere jaiotzean”, jakinarazi digu Jose Luisek. Bizi dugun gizartean informazioa ikus-entzuteko moduetatik dator, “gorrek bizi behar dutenak berarekin elkarrekin eramango. Azken finean, “gurasoak berarekin itsatsita irrati distortsio-eremateak bezala da eta”, azaldu digu Jose Luisek.



Aingeru Molinak 17 urte ditu eta iazko irailetik Logroñon dago informatika ikasten.

jasotzen, asko jota. Hitz batzuk ez dituzte ezagutzen eta ez dira gai, gu bezala, kontestuan ulertzeko". Amaia Urangaren hitzetan, " ikasi ere, nahiz eta gaitasuna izan, oso zaila egiten zaie unibertsitatera joatea hauek ez baitaude egokituta ikasle gorrrak jasotzeko".



Desberdinak

Telebista asko gustatzen zaie bai Urkori eta bai Ibairi ere, "baina gauza asko ez dituzte ulertzen. Egin aproba, joan etxera eta kendu telebistari soinua. Irudien arabera interpretatzen duzu ikusitakoa, baina, azken finean zeure interpretazioa baino ez da".

"Desberdinak direla konturatzzen dira. Hasteko, beraiek aparatua daramate eta besteek ez", azaldu digu Amaia U.k. Urkori behin gertatu zitzaiona oso adierazgarria da, "Plazan jolasak zeuden haurrentzat. Bozgorailuetatik esan zuten zer egin behar zen eta haur guztiak korrika hasi ziren. Urkok ez zekien zer egin behar zen, ezkutatu eta negarrez hasi zen. Nik joan behar izan nuen berekin". Jendeak ez du kontzientziarik gai honen inguruan, "beharbada guztioi azaldu beharko ligukete, gorren aurrean nola hitzegin behar dugun, nola jokatu...", adierazi digu Ibairi amak.

"Bere mundua informatika da", esan digu Nicolas Molina aitak. Zinea ere asko gustatzen zaio, "baina telebista nahi baino gutxiago ikusten du, azpitoluak ez dituzte ematen eta". Entzuleak diren lagunak badituen arren, "entzuleekin dagoenean atzetik joan behar da, gorrekin bat gehiago da". Larunbatetan Durangora joaten da gorren elkarte batera. Etorkizunean, informatikari loturiko edozein lan egin nahi luke.

29 urte ditu **Ana Fernandez de Jauregik** eta Mutrikun dago lanean, Izpin-n. Oinarrizko heziketa Arans-Gin jaso zuen eta gero Mekanikara joan zen administraritzara ikastera, "kostatu egin zitzaidan baina laguntza asko izan nuen". Gaur egun bere lagun taldekoak entzuleak dira, "baina umetan jendeak begiratu egiten zidan aparatua neramalako. Orain gehiago daude, ez da hain arraroa". Igeriketa eta dantza egitea asko gustatzen zaizkio eta urte batzutura, "nere etxean ikusten dut nire burua, erabat indepen-



sook ere beharbada askoz gehiago babesten ditugu. Gu gara beraien begiak eta belarriak askotan". Gero-bera begira, guztiok dute nahiko argi azkenean gorrrak gorrekin elkartzen direla, "guztiok jotzen dugu identifikatzen garen taldearekin elkartera", azaldu digu Urkori aitak.

Gizartean dagoen kontzientzia eza salatzen dute. "Urko apuntatu nuen eskolarteko jokuetan parte hartzeko. Horrela, Elgoibarren ere bere adineko lagunak izatea nahi genuen. Kultur Etxera jo nuen edozein ikastetxetako talderen batean sartzeko eskaera egitera. Baietza jaso nuen baina denbora aurrera joan eta ez zuten deitzen. Bertara jo genuen ea zer gertatzen zen ikustera eta jasotako azalpena entrenatzaile-rik ez zegoela izan zen. Eta gaur arte".

Aurrera begira, haur hauek nola edo hala moldatuko dira bizitzan. Elkarrizketa egin genuen egunean bertan, Ibai presaka atera zen, Nahaste Borrastean parte hartu behar zuten eta. Gero, Plazan ikusi genuen bere ama, "Ibaik irabazi dau" esan zigun.

Guztiok ditugu era bateko edo beste arazoak eta mugak. Kontua, horiekin bizitzen jakitea da. Eta zoriontsu izatea.

Gorrrak gorrekin

Gorrrak beraien adineko beste haurrak baino umeagoak dira, "eta gura-

Arans-Gi haur gorren guraso eta lagunek sortutako elkarte da. Hiru zentro ditu: Donostian, Tolosan eta Bergaran. Helburua, pertsona gorren garapen integrala lortzea da bai gizaki bezala, baita maila sozialean, hezkuntza mailan, lan munduan eta arlo ludikoan ere. Bergarako zentroa 1971. urtean ireki zen eta eskualdeko 19 udalek hartu zuten



ARANS/GI


parte. Besteak beste, diagnostikoa egiten da, zerbitzu medikua eskaintzen dute, teknikoak, psikologikoak, heziketa, informazioa... Eskola normaletako haurrekin batera zenbait ekintza eta asignatura izateaz gain, gorrrak izateagatik atentzio berezia ere jasotzen dute. Gorrari, ezberdintasunaren bidetik erakutsi behar zaio ezagutzen, baloratzen, estimatzen eta garatzen. Arans-Giren iritziz, integrazioaz hitzegiten denean ez da esan nahi gorrrak entzule batekin mahai berean jolasean egon behar duela, bizipenak konpartitu, sentimenduak komunikatu eta pertsona bezala garatzeko gai izan behar dutela baizik.

Noiz hasten dira beherapenak?

Erosle askok egiten digun galdera da eta orain guk geuk ere egiten diogu galdera bera gure buruari. Urtetik urtera beherapenen hasiera aurreratzen doa eta kasu askotan salmenten deboraldia hasi bezain laster aurkitzen gara beherapenetan. Egoera honek sektoreari kalte egiten dio. Nola liteke hau? Oso erraza da. Beherapenak aurreratu salmenta denboraldia moztu egiten da eta aurrikuspenek ez dute ezertarako balio. Kontsumitzailearentzat momentuko lasaitasun bat modukoa da baina epe luzera kalte egiten dio.

Hasiera batean beherapenen funtzioa denboraldiaren bukaeran gelditzen zen jeneroa amaitzea zen. Horrela, denboraldiko jeneroa saltzen da baina ohiko prezioa jaitsiz. Gaur egun zenbait dendak bolada honetarako aparteko jeneroa, espreski horretarako egindakoa ekartzen dute, salmenta garaian edukitakoa baino kalitate gutxiagokoa.

Beharapenak noiz hasi eta noiz amaitu beharko liratekeen inguruan sortzen ari den polemikaren arrazoiak hauek izan daitezke:



JUAN LUIS ASTIGARRAGA
Txankakua Elkarte presidentea

Gaur egungo egoera ekonomikoak kontsumitzaileari kalte egiten dio zuzenean ez baitu lehen zuen erosteko ahalmena. Honela, dendarien irabaziak ere gutxitu egiten dira. Bestalde, merkatuan hainbat sektore daude guk dendariok saltzen ditugun salgaiak oparitu egiten dituztenak, merkataritzari kalte eginez.

Egoera hau dela eta, denda batzuen salmentak gutxitu egin dira. Bai fakturen helmuga dela, bai lokalaren errenta ordaindu behar dutelako, bai supermerkatuen edo denda haundien kompetenziari aurre egiteko edo beste arrazoi batzuek medio, beherapenak aurreratu egiten dira, merkataritza zentroen pausoak jarraituz. Gai hau arautzeko ez dago denen iritzia kontuan hartu behar dela esaten duen legerik.

Gure ustez administrazio, dendarien eta merkataritza zentroen artean adostasun batera helduz beherapenak noiz hasi eta noiz bukatu behar diren arautuko lukeen legea egon beharko litzateke. Bai gure onerako bai kontsumitzaileen onerako ere, azken finean hainbeste aldaketarekin galduta baitabil, erosketak egiteko aburu zehatzik gabe.

1.000.000 pta.tik aurrera

GARAJEAK SAN ROKE 12-14an

INFORMAZIOA ETA
SALMENTA:

JUARISTI bulegoa
Ubitarte 2 - Tel. 74 13 33
ELGOIBAR



SARRERA EGOKIA

Zer deritzozu beherapenak ekainaren 15ean hasteari?



PURI MARTINEZ

52 urte, etxeoandrea

Oso ondo, gero jazteko ere denbora gehiago dago eta. Beherapenetan beharrezkoa bakarrik erosten dut eta batzuetan hasi arte zain egoten naiz.



ANA ROSA OÑEDERRA

31 urte, gozogilea

Hainbeste aurreratzean jendea zain egoten da erosteko. Dendarientzat kalterako da. Uztail bukeran badira, izan daiteke jendeak gutxiago erostea uda amaitzean dagoelako.



KARMEN OLARIAGA

70 urte, etxeoandrea

Ez jata tokau ikusterikan eta nik herrixan erosteko ohituria dakat, igual kapitalian... Dana dala ez naiz errebajen zain eoten baina batzuetan zenbat eta lehen hasi, hobe.



GUILLERMO GARCIA

39 urte, kaldereroa


Niri berdin zait. Egia esan, beherapenak noiz hasten diren ere ez dakit. Normalean behar dudanean erosten dut eta Donostia eta Frantzia aldera joateko ohitura dut.



VERONICA PEREZ-CORTES

14 urte, ikaslea

Zenbat eta lehen hobe, merkeago erosteko aukeria. Ni normalian kanpora juten naiz erropak erostera, Bilbora. Ez naiz zain egoten baina zeozer gustau ezkerero erosi eitzen dot.



JULIAN MARTINEZ

56 urte, langabetua

Primeran! Dena oso garesti dago eta gainera langabezian nago sei urtean. Urte osoan baleude, hobe. Familia ugari dago seme-alaba asko eta soldata bakarrarekin.

CEAM

Irakaskuntza

ERREKUPERAZIOAK: Matematika, Fisika, Lengoaia, Kontabilitatea, ... MAILA GUZTIAK

GESTIOA: Kontabilitate informatizatua - Nominak eta seguritate soziala - Fakturazioa eta almazena.

INFORMATIKA:

DOSen: Word Perfect, DBase III plus, Lotus 1-2-3.

WINDOWSen: Word, Excell, Acces, Pagemaker, ...

TALDE MURRIZTUAK - DIPLOMA AKREDITATIBOAK IKASLE ETA LANGABEUENTZAKO BEHERAPENAK

Laister goitza berria Arane 1,3,5 behean

Fundidores, 1 (Aurrera edifizioa) Tel. 12 74 00 EIBAR

AKADEMI

HERRI-GAIN
ERRETEGIA

San Pedro auzoa 4
(☎ 74 30 40) ELGOIBAR



Altzolako San Juanak amaitzearekin bat, San Pedrokoek hartu dute txanda. Asteburuko ajeen ostean, dantzaldiak, joko eta bazkari herrikoiak, zezentxo eta ponyak, herri kirolak, pilota partiduak, elizkizunak... Denetik izan dute aurten Altzolan, eta orijinaltasun ikutua emateko "Erratzaren dantza", San Juan suak Deba ibaian, eta argazkiak azaltzen duen bezala, San Juan arbolaren sartzea. Ohitura bitxia da San Juan arbola jartzearena. Nonbaitetik pinua moztu eta eliza aurrean birlandatzen da, eta sasoi batean, ausartenak goraino igotzen ei ziren: puntan jarritako objektua hartu eta jaitsi.

■ Matrikulazioa Institutuan

Herri Institutuan matrikulatzeko epea uztailaren 1etik 8ra eta irailaren 2tik 11ra bitartean irekita egongo da, biak barne. Izena emateko goizeko 9etatik 1era bitartean Arreiturre edo Ezenarro ikastetxeetako bulegoetatik pasatu. Tel: 72 02 67/74 44 80.

■ Elgoibartarrak Orioko krosean

Joan den asteburuan Orion jokatu zen kros herrikoian bi elgoibartarrek hartu zuten parte. Mintxeta Atletismo Taldeko Mireia Huidobrok infantiletan, 2,7 km-ko distantzia korritu zuen eta ederki gainera, lasterketa berak irabazi baitzuen. Nagusien kategorian, berriz, beste emakume batek, Pilar Arriolak bosgarren lekuan amaitu zuen 10 km luze izan zen lasterketa.



San Juan bezperan, joan den igande gauean, sekula ez bezalako jendetza elkartu zen Plaza Handian San Juan suaren inguruan dantzak ikusteko. Gainezka zegoen Plazaren erdian sua egin zen eta Haritz Dantzari Taldekoek, txistulariek eta trikitilariak lagunduta, dantza egin zuten inguruan. Lehenengo, neskek Urdiaineko dantza egin zuten eta ondoren gaztetxoek, soka-dantza. Ordubate baino gehiago iraun zuen ekitaldi honen antzekoa duela 10 urte egin zen azken aldiz eta aurten Kilometroak direla-eta berreskuratu nahi izan dute berriz.



Egur Arte tailerreko ikasleek urtean zehar egindako lanen erakusketa antolatu dute Kultur Etxeko erakusgelan. Ekainaren 21a inaugurazio eguna izan zen, eta lauzpabost lagun animatu ziren BARREnerako argazkia ateratzera Egur osatzen duten tailer ezberdinen izenean. Uztailaren 5a izango da esmalte, grabatu, oleo eta akuarelak bisitatzeko azken eguna.

■ "Nación Andaluza"koekin elkarrizketa Zazpiki irratiko programa berezian

Zazpiki Irratiak Nación Andaluza izeneko elkarteko bi kideekin elkarrizketa emango du larunbatean, hilak 29, arratsaldeko 3etatik 4etara bitartean. Nación Andaluza alderdi politiko sortzeko bidean dago eta horren inguruko gora-beherei buruz arituko dira.

Zubi-Ondo elkarte berriaren

inaugurazioan ateratako erretratua dugu albokoa. Duela pare bat zapatu egin zuten Zubi-Ondokoek inaugurazioa, eta ordutik martxan dago Zubi-Ondo zaharraren ordezkua dena. Santa Klarako etxe berrietako lokaletan dago kokatua, 634 errepede nazionalari begira. Inaugurazioan bazkideak ezezik, apaizaren bedeinkazioa eta Udal agintarien bisita ere jaso zituzten.



SOARTE



AZKUE

Goiti Kooperatibako zuzendaritza batzordeak azken 17 urteotan jubilatutako guztiei omenaldia egin zien joan den larunbatean. Goiz partean Goitiko areto berriaren inaugurazioaren ostean, argazkia atera zuten tailerreko atarian eta segidan, San Pedrorantz abiatu, bertan bazkaltzeko asmotan. 35 lagunek jaso zuten juntako eskutik Goitiko guztien eskerrona. Jubilatutako guztiei pol-tsikoko erloju dotorea eman zieten egun polit horren oroigarri modura. Argazkian, omenduak agertzen dira, eta aurreko ilaran juntako kideak eta gerentea.

Elgoibarko zuhaitzen sailkapena egin dute Herri Eskolakoek

Herri Eskolako 8. mailako ikasleek herriko zuhaitz eta arbola ezberdinen sailkapena egin dute. Proiektuak Udalaren diru laguntza jaso du eta Herri Eskolako ikasleek arbola motak aztertu eta bakoitzari buruzko fitxak egin dituzte, izena eta ezaugarri inportanteenekin. Fitxak euskaraz eta gaztelaniaz daude eta izen zientifikoa ere agertzen da, latinez. Herriko parkeetako 250 bat arbolaren aurrean makilak eta fitxak jarri dituzte. Oinezkoak nahikoa izango du fitxa irakur-

tzea arbolaren berri izateko. Herri Eskolako eta Udaleko arduradunek makilak eta fitxak errespetatzeko eskatu nahi diete herritarrei.

Bestetik, 8. mailako ikasle eta irakasleak Saloun egon dira ikasbidaian eta handik bidali digute erretratu hau. Tarragona eta Port-Aventura ezagutzeko aukera izan dute, bai eta Bartzelona, Safari-park, Aquapark eta beste toki batzuk ere. Dagoeneko Elgoibarren daude eta ederki pasatu dutela jakin dugu.



Jaione Ansola:

"Helburua ondo pasatuz euskaraz bizitzea da"

Jaione Ansola orain 31 urte jaio zen. Gaztetan biologia ikasi nahi zuen baina, horretarako Bilbora alde egin behar zuela eta berak Donostia nahiago zuenez, magisteritza aukeratu zuen, natur zientzien adarretik.

Aurten Aubixan izan da ikasturte osoan, astero-astero adin desberdineko haurren begirale-hezitzaile bezala. Eusko Jaurlaritzak euskara bultzatzeko antolatzen duen programaren barruan aritu da Jaione.

- Eskolan egon izan zara irakasle. Orain barnetegian.

- Bai, oso desberdina da. Goizez lau ordu eta arratsaldez beste lau egoten gara umekin, ekintza ezberdinak antolatu eta beraiekin jolasean. Oso ludikoa da, Aubixan ez dago ez matematikarik, ez etxeko lanik eta ez hizkuntzarik.

- Euskara bakarrik.

- Bai, ondo pasatuz euskaraz ere bizitzea posible dela erakustea da helburua.

- Lau barnetegi guztira.

- Bai, bata Aubixa, bestea Plentzian, Gaztelun beste bat eta azkena Alkizan. Irailean Seguran ireki behar dute beste bat eta datorren ikasturtean bertara joateko asmoa dut.

- Urte osoan zehar egoten al dira haurrak?

- Bai, 34 talde guztira, Euskal Herri osotik etorriak. Azken taldea Elgoibarkoa izan da eta Oionetik ere etorri zen beste bat.

- Zer moduz moldatzen zara haurrekin?

- Oso ondo. Beraiekin zaude egun guztia, batek ez dakit zer kontatzen dizu, bestea besotik helduta daukazu egun



"Jende ezberdinarekin ibiltzeak berri- egiten zaitu"

osoa, mimoak nahi izaten dituzte...

- Askorentzat etxetik kanpo dauden lehen aldia izango da.

- Lo etxetik kanpo egiten duten lehen aldia bai, askorentzat. Baina oso ondo pasatzen dute, batean Kalamura joaten gara, bestean Arratera, hurrengoan etxe barruan egiten ditugu jolasak... Ostiralean, bukatzeko, altxor bila egiten dugu San Pedron.

- Talde bakoitzarekin beraien eskolako irakas-

le bat egoten da, ez?

- Bai. Bazkariaren ardura beraiena da, bai eta arratsaldeko 6,30etatik aurrera ere, dutxak, gauak... Gure lana egunean zehar egin beharreko ekintzak antolatu eta haurrekin ibiltzea da.

- Ekintzak errepikatu egiten al dituzue astero?

- Adinaren arabera, kopuruaren arabera, jatorriaren arabera taldea ezberdina da eta hori kontuan izanik ekintzak ezberdinak izaten dira.

- Monotoniak ba al du

tokirik?

- Askoz monotonoa goa da klaseak gela batean ematea. Barnetegi batean askoz flexibleagoa zara, gauzak, ekintzak aldatu eta batzuetan inprobisatu ere egin behar izaten duzu.

- Ikasi ere asko, ez?

- Bai, pila bat. Lehen esan bezala, flexiblea izaten eta egoera ezberdinetara egokitzen ikasten da. 8 ordu dira eta oso intentsoak, denbora guztia mugitzen, batetik bestera haurrekin jolasean... Gainera, hainbeste jende ezberdinekin ibiltzeak zeu ere berri-egiten zaitu. Gizartearen islada ikusten duzu.

- Esaterako?

- Behin euki gendun ilia berdia zakan ume bat. Azken finian, haurrengan oso nabarmena da gizarte-aren izaten diren aldaketak.

- Anekdotarik?

- Behin Bizkaiko ikastetxe batetik etorri ziren eta Joseba Etxeberriaren jarraitzaileak ziren. Kasualitatez Joseba Elgoibarren zegoen eta Aubixara etortzeko eskatu genion. Elkarrizketa bat egin zioten, berarekin jan zuten ogitartekoa... Oso ondo pasatu zuten haurrek.



H

ilabete honetako argazkia **Teofila Muguruzak** lagatakoa da eta berak esan digunez 1946. urtean ateratakoa. Argazkian monjen eskolako patioan daude eskulanak egiten: bata josten, bestea irakurtzen... Hona hemen argazkian daudenak. Ezkerretik hasita: **Milagros Larrañaga** (zutik). Eserita: **Teofila Muguruza**, **Margarita Gabilondo**, **Pilar Zulaika** eta **Maritxu Ansola**. Zutik **Anparo Larringan** eta eserita **Lourdes Arrizabalaga** eta **Miren Arrieta**.

LAGUN BETIKOAK:

Ilusioz beteriko proiektu

Zorionez edo zoritxarrez guztiok zahartzen goaz urteek aurrera egin ahala. Horrek ez du esan nahi, ordea, ezin dezakegunik ezer egin. Askok diotenez, hirugarren adinean bizitzen diren esperientziak oso positiboak dira. Hori kontuan izanik, Marian Belda, Montse Rubio eta Elvira Fidalgo mendarotarrak elkartu eta zerbait egitea pentsatu zuten. Sikologia ikasitako hiru neska hauek Udaletxean azaldu zuten beraien asmoa. Udalak hasieratik oniritzia eman zien eta inkesta bat bidali zieten jubilatuei




Lagun Betikoak elkarteko bazkide al zara?



Dionisia Idigoras

69 urte

Ni "Lagun Betikoak"-eko bazkide naiz eta oso gustura nago. Arratsaldero joaten naiz jubilatuen tabernara kartetan jolastera eta pozik ibil-tzen gara. Orain aldea dago, lehen ez geneukan tokirik elkartzeko. Antolatzen dian ekintza guztietan ere parte hartzen dut: bidaietan, txokolatadan...



Diego Barquero

68 urte

Ni oso gustura nago lokalarekin ze lehen ez geneukan tokirik danak batera egoteko. 1.000 pta. ordaintzia urtian ez da ezer eta gainera merezi dau, lokalian oso ondo egoten dalako eta tokixetara juteko aukera bat dalako. Nik oso ondo pasatzen det.

Proiektua

ideiaren berri emanaz. Eran-tzuna oso positiboa izan zen.

Proiektua egin, Udalak onartu eta hainbat bilera egin zituzten jubilatuekin. Batzar haietan bi gauza ikusi zituzten beharrezkoak: ekintzak egitea eta lokala izatea. Gipuzkoako Jubilatuen Elkarteko presidentearekin elkartu eta zuzendaritza osatzearen beharra ikusi zuten. Zuzendari-tzak, aipatutako hiru neskek eta Udaleko Ongizate saileko teknikaria den Palomak estatutuak egin zituzten. Bazkideak has zitezkeen izena ematen. Gaur egun 262 bazkide daude Lagun Betikoak elkartean eta lokal proioa ere badute.

VALENTIN JAUREGI:

"Oso gustura gaude lokalarekin"



■ Nolatan Lagun Betikoak elkarteko lehendakari?

- Gu 1994. urtean elkartu ginan, bilerak egin, animatu eta zuzendaritza osatu gendun. Orduantxe aukeratu ninduten presidentie.

■ Lokalaren inguruan, zer?

- Lokala 1995. urteko maiatzaren 26an inauguratu zen. Goizeko 9etan zabalitzen da eta gaueko 10etan edo ixten. Ez daka ordu fijosik. Oso gustura gaude lokalarekin.

■ Nola funtzionatzen du zuen elkarteak?

- Direktiba bat daukagu eta bilerak egiten ditugu ahal dugunean gauzak erabakitzeko: irteerak, dirua...

■ Diruarekin nola moldatzen

zarete?

- Urtean 1.000 pta.ko kuota ordaintzen dugu eta gero Udalak eta Diputazioak ematen digun diruarekin moldatzen gara.

■ Badakigu gimnasia egiten duzuela.

- Bai. Gimnasia ikastaroa antolatu genuen eta Ikastolan egiten dugu. Irakasle bat etortzen zaigu.

■ Ekintza asko antolatzen dituzue, ez?

- Irteerak egiten ditugu. Datorren astean Bizkaiara goaz eta Lisarrolara ere joan ginen. Gabonetan txokolatada antolatzen deu eta gero zestak zozketatzen ditugu.



Sabin Urbieta

61 urte

Neri pasiaran ibiltzia asko gustatzen jata, ez jata gustatzen lokal baten sartuta egotia. Diruana ez da problemia, 1.000 pta. urtian ez da ezer eta. Baina ez jata burutik pasau ere egin sozio itxia. Igual hemendik urte batzuetara jango naiz.



Guada Maguregi

57 urte

Orain artian ni ez naiz bazkide izan ez zaidalako bururatu baina etxian beti esaten didate apuntatzeko eta azkenian erabaki dut apuntatzia. Aste honetan justu apuntatu behar naiz.

Aire libreko zine emanaldia

- Mendaroko Udalak antolatuta, uztailaren 12an, ostirala, gaueko 10,30etan hasita Aire Libreko zine emanaldia izango da Garagartzako plazan. Ikusgai izango den pelikula "Speed" izango da.

Mendaroko XI. Txirrindulari lasterketa

- Mendaroko Txirrindulari Elkarteak antolatuta Udalaren laguntzarekin, uztailaren 13an, larunbata, Txirrindulari lasterketa izango da kadete mailan. Lasterketa arratsaldeko 4,30etan hasiko da.

Euskara ikasteko dirulaguntzak

- Mendaroko Udaleko Euskara Batzordeak 1995/96 ikasturtean euskara ikastera doazen mendarotarrei dirulaguntzak ematea erabaki du. Horretarako, mendarotar biztanlea izan behar da, ikastaroaren gutxieneko asistentzia %90a, ikastaroa amaitu egin behar da eta matrikulatutako ikastaroaren azterketa guztiak eginak izan behar dira. Udalak ikasleari kurtso amaieran kostatu zaion matrikularen erdia emango dio, euskaltegiak bere beka sistema erabiliz ikasleari itzuli dion zenbatekoa kenduta. Horrez gain, ikaslea klasera joan den egun bakoitzeko 85 pta.ko dirulaguntza emango zaio bidaiengatik. Dirulaguntza jasotzeko goian aipatutako baldintzen agiriak aurkeztu behar dira uztailaren 12a baino lehen.



Mendaroko umeen Euskal jaiak


Igandean, ekainak 30, Mendaroko Umeen Euskal Jaiak ospatuko da Mendaroko Gazteak Lagun Taldeak antolatuta Udalaren laguntzarekin. Urtero bezala, Euskal Herriko toki ezberdinetatik etorriko dira dantza taldeak eta bakoitzak bere ikuskizuna eskainiko du. Domekan ikusiko ditugun taldeak Azkoitia, Zarautz,

Markina eta Mendarokoak izango dira.

Goizeko 10,30etan dantza taldeak Goñatin elkartuko dira eta hamaiketako egingo dute. Ondoren, dantzarien kalejira izango da eta eguerdiko 1ean dantza saioa frontoian. Arra-tsaldeko 5etan alardea izango da Goñatin eta ondoren erromeria.

Mendaroko V. Pilota Txapelketa

Mendaroko V. Pilota Txapelketa amaitzean dago eta orain arteko partiduetan ikusi denez, maila ezinhobea erakutsi dute partehartzaile guztiak. Bihar, hilak 29, eskuz binakako finalurrekoak jokatuko dira Goñati pilotalekuan. Goizeko 11etan Andonegi-Lazarobaster bikotea arituko da Esnaola-Egañaren aurka. Eguerdiko 12etan, berriz, Beraza-Gabilondo eta Lendinez-Maguregiren arteko partidua izango da ikusgai. Finalak uztailaren 6an eta 7an jokatuko dira, bai infantilen maila bai helduena, palaz zein eskuz.



Mariasun Olazabal

Arkupe tindategikoa



- **Zein kolorez tindatuko zenuke bizitza?** ▶ Neure kolorea beti izan da urdina, eta argixa bada hobea.
- **Zerk behar du garbitu on bat?** ▶ Politiko guztiek.
- **Bizitzan jaso duzun “plantxazorik” handiena?** ▶ Tailer baten pila bat urte ein eta azkenian eskerrik gabe itxi eta kalera.
- **Zimurra ederra al da?** ▶ Bai, baina 5.000 pta.ko biletian.
- **Zure gorputzeko zein atal aseguratuko zenuke?** ▶ Batez ere eskuak eta begiak.
- **Zein balore bilduko zenuke zetaz?** ▶ Osasuna.
- **Nork merezi du dutxa hotz bat?** ▶ Pertsona askok.
- **Norekin hartuko zenuke bainu bero bat?** ▶ Ilobarekin.
- **Zein egoera da pintzaz heltzekoa?** ▶ 15-16 urteak, oso garai zaila da
- **Zein ideia “aklaratu” nahi zenuke?** ▶ Pertsonak botere politikoa lortzen dutenean zergatik dituzten pribilejio bereziak.
- **Zerk nahasten dizkizu barruak?** ▶ Errespetu faltak.
- **Gustuko usaina?** ▶ Arrosena.
- **Ebitatu ezin duzun tentaziorik?** ▶ Txokolataa.
- **Udak duen onena?** ▶ Beroa, eguzkia eta bizipoza.
- **Zein famaturen bizimodua nahi zenuke egun baterako?** ▶ Mike Olfield-ekin gustura pasako nuke egun bat.
- **Zer eskatuko zenioke lanparako jeniari?** ▶ Loto eder-eder bat baten batzuk pikutara bialtzeko.
- **Ametsak koloretan ala zuri-beltzean?** ▶ Ez dakat ametsak eitzeke denborarik baina ikusten ditxutenian, txuri-txuriak dia.
- **Beste lanbide bat izatekotan?** ▶ Musika asko gustatzen zait. Pianista edo.
- **Berriz jaioko bazina?** ▶ Emakumea, dudarik gabe.
- **Mantxak kentzeko trukorik?** ▶ Ez dago, mantxa txarra bada miraririk egiterik ez dago.

EZINDU FISIKOAK

DOINUA:

Ara nun diran

Gaitz ugaritxo azaltzen dira jaiotzarekin batera beste batzuei etortzen zaie istripuen besoetan inork ezin du imajinatu eginez gero berbetan denok daukagu ezagunen bat gaitz guzti hauen garretan.

Gure herria polita baina prestatu gabe nahi aina kalera irten imajinatu geure burua ezindu egun osoan kalean zehar egingo ginen bigundu gure herriko arkitektura beharko dugu apaindu



JOSU GUENETXEA

B
E
R
R
I
Z
T
A
T
Z
E
A
K

ITZALA
Edergintza
San Frantzisko, 49 - 1 esk.
Tel. 74 43 03 - ELGOIBAR

INTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
San Roke, 30 behe. ☎ 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

XABIER
ILEAPAINDEGIA
Eskatu eguna eta ordua
San Bartolome 13, Tel. 74 19 97

Beharapenatarako aholkuak

Udal Kontsumorako Bulegoak zenbait aholku eta informazio kaleratu ditu beharapenak direla eta. Amaia Nogero Kontsumo Bulegoko teknikariaren esanetan, "beharapenak, saldoak eta likidazioak ez dira gauza berdina. Beharapenetan, sasoi aldaketa baten aurrean ohiko prezioa jaisten zaizkie produktuei. Saldoak hondatutako artikuluen salmenta dira eta likidazioa denda bat ixten denean egiten den salmenta". Beharapenetan zenbait gauza kontuan hartzea gomendatzen da: tiketa eskatzea, kalitatea berdina dela ziurtatzea, etiketarik gabeko artikulua baztertzeko, bi prezioak agertzea, itzultzeko aukera ematen duten dendetan erostea eta kreditu txartelak onartzen dituzten dendetan beharapenetan ere onartu behar dituztela kontuan izatea.

Kartel-lehiaketa

Urtero bezala San Bartolome jaietako programaren azala lehiaketa bidez aukeratu da. Udalak lehiaketan parte hartzeko oinarriak kaleratu berri ditu: Teknika librea A2 neurriko lanak izango dira. Ezinbestekoa izango da "Elgoibar, San Bartolome jaiak 1996" testua agertzea. Lehenengo saria 50.000 pta.koa izango da eta 15.000 pta.ko sari berezia egongo da lehen herritarrarentzat.

San Pedron ere hasi da uda sasoiak

Joan den igandean hasi zen San Pedron udako denboraldia. Iraila bukaera edo urria hasiera bitartean, eguraldi ona egiten duen guztietan hainbat eta hainbat pertsona hurreratuko da bertara egun pasa. Urtero bezala aurten ere Udalak kanparen arduraduna aukeratu du. Deialdi publikoa egin eta zazpi pertsonak eman zuten izena. Horiek guztiek frogatzen zuten behar izan zuten San Pedron bertan belarra moztuz. Gero, elkarrizketa pertsonala izan zen, besteak beste euskara maila neurtzeko. Nekane Etxani-

zek eskuratu zuen postua.

Aurrerantzean bera izango da San Pedroko arduraduna. Inguuruak txukun eta garbi izatea bere ardurakoa da, belarra mozteko, trafikoa zuzentzeko, jendeak arauak betetzen dituela kontrolatzea eta abar.

Besteak beste, debekatuta dago zuhaitzetan zintzilikatzea, zelaian futboleko jolastea, autoa aparkatzea, kolunpioak jartzea, sua egitea... Horiek guztiak argi eta garbi zehaztuak dauden arren kartelen bidez, jendeak askotan ez ditu errespetatzen.



Nekane Etxaniz da San Pedroko arduradun berria.



GRUAS PANA ☎ **74 38 39**
77 06 23
24 ORDU - BIDAI ASISTENTZIA ZERBITZUA

MIREN
arraindegia



Santa Ana
74 34 49
ELGOIBAR

Olaetxea dorretxea II

- Bigarren eta hirugarren solairuan bina baogune dinteldu daude eta ganbaran hiru leiho txiki dinteldu. Fatxada honen goiko aldean, horman bertan, duela urte asko zuhaitz bat hazi zen, "arte" eta han dirau txiki bezain gogor harmora historikoaren energiaz elikatuz.
- Mendebaldeko fatxadako sotoan arku zorrotz haundia dago, ekialdeko fatxadaren arku bizkia, ura sartu eta irteteko baoguneak zirelarik.
- Lehenengo solairuan leiho dinteldu bat

dago beheko arkuaren ardatza zaintzen duelarik.

- Bigarren eta hirugarren solairuan bina leiho daude.
- Hurrengo mendean Markinako Migel Antonio Murga eta Andonaegik hartu zuten andonaegitarren heredentzia.
- 1860. urtean Gipuzkoan 31 burdinola zeuden eta hauetatik 4 Elgoibarren (Olaetxea barne). Halere, denbora gutxi iraun zuten, labe garai modernoak sartzen hasi ziren eta.
- San Pedro fabrika 1877an eraiki zen eta honen sorrerak erdi arotik martxan zeuden bailarako burdinolen desagerpena ekarri zuen.

PELLO ARRIETA



Maria Artetxe Galdos (1922-1974)



- 1922ko otsailaren 25ean jaio zen Urtia baserrian.
- 7 anai-arrebaren artetik 3.a zen.
- Madalako Milagrosa eta Eskola Publikoetan ibili zen.
- Baserrian egiten zuen lan, eta baratzeko lanak zituen oso gogoko, larrosa kontuak batez ere. Landarak erein eta hazi ederrak ateratzen zituen bai eta larrosa sorta ederrak egiten ere.
- Isidro Leiaristirekin ezkondu zen eta familia sortu zuten.
- Urte askotan berdurak eta esnea partizera etortzen zen herrira.
- Dantza asko gustatzen zitzaion, solteko dantza bai eta aureskua ere.
- Emakume argia eta alaia zen, sinesmen handikoa.
- Herrian oso ezaguna zen herritarren artean. "Urtiako Maritxu" izenez ezagutzen zuten denek.
- 1974ko martxoaren 24an hil zen 52 urte zituela.

JUANITO GOROSTIZA

GOXO

Qutaki, Armila, galdak, Ederrak
etxean egindako barkiloak,
erroskilak,...

MERIENDAK GUREKIN!

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Franzisko 49-1 tel. 74 11 89

MALAPE

MINTXETAKO II. FUTBOL TXAPELKETA

Emaitzak

Grassopper 9 - Berrogei Duro 0
S. Pitxote 1 - Lucky Luke 4
La Colina 3 - Numancia 3
Vaso Play 1 - Gazteak 7
Manchester Lojan 3 - 12 Monos 5
O. Frantziskana 4 - Rapid de Elg. 1
Cachi Potas 4 - Thunderdome 2
Karkis 2 - Lagun Onak 0
Txirinbitxu 6 - Udaberri 0
Lagun Toki 3 - Zokoa Club 1
B. La Amistad 3 - Koipez Ase 1
Vaya Robo 5 - Pedrusko 5
Vultur Griphus 4 - C.D. Vallecás 0
Xare 14 - Puta Mierda 1
Peña Alaitz 5 - Rebel Urbi 2
Txirristaka 5 - Ikas Gutxi 0
Emaiok Gatza 2 - Anorthosis 4

Agenda

Larunbata, 29

9,00 Rebel Urbi - Kriston Arrautzak
Emoiok Gatza - Ikas Gutxi
10,00 Peña Alaitz - Puta Mierda
Lagun Toki - O. Frantziskana
11,00 C.D. Vallecás - Ez Baikorrak
Grassopper - Zokoa Club
12,00 Vultur Griphus - Pedrusko
Anorthosis - Manitu
13,00 Koipez Ase - Euromixto
B. Duro - R. de Elgoibar

Igandea, 30

10,00 M. Lojan - Cachi Potas
11,00 Gazteak - Numancia
Lagun Onak - Thunderdome
12,00 Vaso Play - Lucky Luke
Karkis - 12 Monos
13,00 S. Pitxote - La Colina
B. La Amistad - Udaberri



J. Ramon Iriarte:


“Herritarrak taldiakin identifikatzea nahi dogu”

■ **Finalean denetik.** - 2. mailako partidua erretza zan, Antxeta azkena dao eta. Nerbixuak zian txarrena. Baina azkenian txapeldun. Lehen mailan kontrarixuak esperientzia asko zaukan. Igaz beraiek izan ziazen txapeldunak. Partidu ona ein gendun baina... Txapelaz gain, Espainiako txapelketara juteko posibilitadiaz ere galdu gendun.

■ **Datorren urtian akaso.** - Zaila da esatia. Oin dala 7 urte taldea federatu zan eta txapelketa askotan jokatu dou: Urasandin, Zarautzen... Jokalari asko etorri diaz eta beste asko jun. 3. mailan hasi ginan talde bakarrakin. Hurrengo urtian bigarren mailara ein gendun salto eta ekipo filiala sortu. Hurrengo urtian lelengo mailara igo gendun eta filiala bigarren mailara igo zan. Baina txapela lortzia... Gipuzkuan oso talde onak daoz.

■ **Kategorien transformazioa egon da.** - Oin arte 3 kategoria zaozen; oin 4 eongo dia Gipuzkuan. Lelengo ekipua Dibisio Autonomikuan eongo da eta bigarrena, lelengo mailan.

■ **Gipuzkoan onenen artean zaudete.** - Gipuzkuako lelengo 32ren artian gaude. Bi taldeak kontsolidatuak daude. Datorren denboraldian 8 jokalari berri sartuko ditxuguz, hamenguak danak eibartar bat



izan ezik. Oindiok ez dakigu, baina Eibarko Indarra kategoriaz jaitzi da eta kontaktuan gaude interesatuak daudelako Elgoibarren jokatzeko.

■ **Talde gaztea osatuko duzue.** - Gure ustez hortik ein bihar da lana. Aurten 26 jokalari hasi eta 14k bukatu dabe. Lesioak izaten diaz tartian, entrenamendu gogorak, asko desanimatu eitxen diaz bankiloan eotiaz...

■ **Eibartarra izanik, gustura Elgoibarren?** - Emaztea San Pedro kalekoa dut. Beti gustau izan jata areto futbola eta, hola, talde bat sortu gendun San Pedron. Urte hauetan auzoko taldea herrira hurbildu nahi izan dou. Herrixa taldiakin identifikatzea, kuadriletako jendia sartuz. Daneri irikita gaaz, gustora hartuko genun laguntza. Ondo eongo zan emakume taldea sortzia.

■ **Ardura delegatzeko gogoarekin?** - Junta bat sortzen saiatu naiz baina ezingo nuke guztiz laga. Pena bat da ekipo on bat sortzia eta zuzendaritzarik ez egoitegatik, denbora gutxira desagertzia. Udalletxiak ere izugarri lagundu digu eta herriko denda askok ere bai. Eskerrak deneri.

• Adina: 38
• Zer du faltan Klubak? Diru laguntzak, bai eta antolakuntzarako laguntza ere
• Eta zer soberan? Ilusioa ugari eta jokatzeko inpatientzia



Azterketak bukatu ondoren ba al duzu beste zereginik?

LARRAÑAGA autoeskola

Gazte txartelarekin %10eko BEHERAPENA izena ematean

Santa Ana II - ☎ 74 10 11 - ELGOIBAR

Martin Dominguez nagusitu zen Nahaste-Borrastean

Martin Dominguezek aise irabazi zuen joan den ostiralean Nahaste-Borrastea. Lehen lasterketan, jadanik, aurrea hartu zien Dominguezek gainontzekoei, eta zakuarekin eta saltaka bukatu ondoren, bigarren sailkatuarekiko

aldea areagotu baino ez zen egin. David Conde izan zen bigarrena eta ia minutu bat beranduago iritsi zen Plaza Handiko helmugara. Dominguez bigarren izan zen iazko Nahaste-Borrastean, eta iaz baino minutu bat gutxiago behar izan du aurten lasterketa buru-

tzeko. Partaidetza kopuruari dagokionean, Nahaste-Borrasteak duela bi urte jo zuen goia: guztira 126 korrikalarik hartu zuten parte. Ordutik gaurdaino asko jaitsi da korrikalari kopurua. Aurten 45 lagunek hartu du parte eta iaz 40k.

SAILKAPENA

■ KADETEAK:

1- Ibai Etxabe 12'15"

■ INFANTIL MUTILAK:

1- Iñigo Lariz 12'16"

2- Sergio Galindo 13'14"

3- Aitor Rosario 13'18"

(Partehartzaileak: 10)

■ INFANTIL NESKAK:

1- Evelin Santos 13'48"

2- Mireia Huidobro 13'55"

(Partehartzaileak: 2)

■ NAGUSIAK:

1- Martin Dominguez 21'21"

2- David Conde 22'25"

3- Jorge González 22'38"

■ NESKAK:

1- Isabel Ruiz 30'37"

■ BETERANOAK A

1- Inazio Pérez 24'05"

2- Juanjo Etxeberria 24'30"

■ BETERANOAK B

Antonio Fernández 28'35"

(Partehartzaileak: 33)



M. Dominguez helmugan sartzen. Lasterketa ostean, saria jaso zuten korrikalariak.

Txapela batzuentzat eta porrota besteentzat

Elgoibarko Areta Futbol Klubeko bi taldeek finalak jokatu zituzten pasa den ostiral gauean Olaizaga kiroldegian. Zaletuen animoak sekula baino gertuago sentitu bazituzten ere, lehen mailako taldeak ezin izan zien irabazi Hernaniko Egokikoei; 2 eta 3 galdu zuten. Hortaz, sailkapeneko buru baziren ere elgoibartarrak, azkenean laugarren postuan geratu dira. Sailkapena honela geratu da: Egoki (21 puntu), Cactus Pub (20), Promociones Madaia (20) eta Elgoibar A.F. (18).

Bigarren mailakoek, berriz, 3 eta 2 irabazi zuten Antxetaren kontra. Ligako txapeldun izateaz gain, hauek kategoriaz igotzea lortu dute, 2. mailatik 1. mailara, alegia. Sailkapena honela geratu da: Elgoibar A.F. (25), Interpub Squall (25), C. Extremeño (24) eta Cocinas Urarte (21).



Argazkian lehen mailakoak eta bigarrenkoak daude. Ezkerretik hasita atzeko ilaran: Oscar Muñoz, Gorka Mujika, Gorka Muñoz, Jon Revert "Txuni", Pedro Galarraga, Xabi Alberdi, Angel Romero eta Jose Ramon Iriarte 2. mailako taldearen entrenatzailea. Makurtuta: Oscar Díez, Gorka Azpilikueta, Antonio García, Manu Rey, Jonan Aldazabal, Mikel Ortiz eta Andres Valenciaga. Hector Garrido eta 1. mailako entrenatzailea, Jon Pozuelo falta dira argazkian.

Doinu sefarditak Julia León-en eskutik

Julia León abeslari madrildarrak, Rosa León abeslariaren eta Eva León aktorearen ahizpa denak, sefardi musikaren saioa eskainiko du gaur, hilak 28, Herriko Antzokian. 25 urte daramatza emakume honek musika munduan. “Canción del Pueblo” izeneko taldean hasi zen, “Francoren garaiak ziren eta erreibindikazio kutsua zuten gure abestiek”. Beti ikertu izan du folklorea, “edertasunaren bila ibili izan naiz, fusioko musikaren bidetik, sefarditen doinuekin topo egin nuen arte. Musikari guztiek bilatzen dugun hori eman dit niri musika mota honek”. Ekialdeko eta mendebaldeko doinuen batuketa da sefardi musika, sefardi hizkuntza abesten dena. “Espainiatik bidalitako juduak dira sefarditak, 500 urtetan zehar gorde dute beraien hizkuntza, sefardia edo gaztelania ladinoa deitzen dena”. Julia Leónek 14 bat kantu abestuko ditu eta aurkezpen moduko bat egingo du ikuskizunaren hasieran. Kantariaren laguntzailer Pascual Gaigne kitarra eta teklatuarekin eta Luis Camino izango dira, azken hau perkusioarekin. Kutzak antolatutako saia 22,30etan hasiko da. Sarrera dohainekoa da.

Udako kontzertuei ekingo die Bandak larunbatean

Udal Musika Bandak uda garaiko kontzertu sasoiaren hasiko du larunbatean. Herriko Antzokian izan beharrean, Plaza Handiko arkupeetan joko dituzte aurrerantzean kontzertuak. Egunari dagokionean ere aldatarik bada: igandean izan ordez, zapatu gauean joko dute. Gaueko 22,30etan hasita bost musika lan joko dituzte J. A. Osororen zuzendaritzapean: “Segrelles” pasodoblea, “Caballería Ligera” obertura, Bizet-en “L’Arlessiene” minuetoa, “La Leyenda del beso” eta “Spiritual Rhapsody”.

Elkarteetako euskararen egoeraren berri eman dute Gurean Bai-ko arduradunek

Gurean Bai Hitzarmeneko Segimendu-Batzordeak prentsaurrekoa eman zuren atzo, osteguna, orain arte egindakoari buruzko azalpenak eman eta 51 elkarteetako euskararen egoerari buruzko informazio-diptikoa aurkezteko. Hitzarmena sinatu zuten entitateetako euskararen egoera zein den

aztertu dutenez, orain elkarte bakoitzean euskara indartzeko ahaleaginean sakonduko dute. Gurean Bai hitzarmena 1996ko urtarrilean jarri zuten martxan eta euskararen erabilera bultzatzeko proiektua da, Elgoibarko Izarrak prestatu eta Udalak babesturiko proiektua, hain zuzen ere.



Erdian, Abel Irizar hitzarmeneko teknikaria eta alboetan Segimendu Batzordeko bi kide.

Bolo eta toka txapelketa izango da larunbatean San Pedroko jaietan

Kilometroak 96 eta Gipuzkoako Bolo Federazioaren eskutik, Deba Bailarako Bolo eta Toka Txapelketa jokatu da zapatuan, hilak 29, arratsaldeko 6etatik aurrera San Pedroko jaien barruan. Antolatzaileen nahia gazteek eta horren gazte ez direnek parte hartzea da, jokoaren bilakaera ezagutzeko asmoz. Bolo eta toka jokoak une berean hasiko dira, zirkuitu moduko bat eginez. Hartara, batzuek boloetan botatzen duten bitartean beste batzuek tokan aritzeko aukera izango dute. Gipuzkoako Federazioaren laguntzaz, Eibar, Plazentzia, Elgeta, Etxebarri eta

Markinako zaletuen erakustaldia izango da. Hiru txirloko bolo-jokoa ezaguna den arren, Elgoibar inguruan nahiko ezezaguna da toka. Burdin bat zutik jartzen da; fitxa moduko batzuen bidez burdina jotzen ahalegindu behar da jokalaria. Joaldi bakoitzeko hainbat puntu eskuratzen dira; hortaz, gehien jotzen duenak irabazten du. Donostialdean eta Goierri inguruan dago tokan jokatzeko ohitura. Elgoibarraren, ez da sekula zapatuan egingo den jokaldiaren modurik antolatu. Txapelketa amaieran herriko hainbat dendak emandako opariak banatuko dira.


Ongarri, Estatuko Argazki Sariketarako izendatua

Elgoibarko Ongarri Argazki Taldeak Estatuko argazkigintza mailan ematen diren saririk garrantzitsuena jaso dezake. Espainiako Argazki Konfederazioak, "Premio Nacional de Fotografía" delako sariketa ospetsurako izendatu du Elgoibarko Ongarri.

Oraindik orain nominazioa baino ez du jaso gure herriko taldeak. Elkarteen atalerako izan da hautatua eta Madrileko Real Sociedad Fotográfica, Algeciras-eko UFCA, Cerdanyolako Argazki Taldea eta Gipuzkoako Argazki Elkarte dira gai-nontzeko hautatuak.

Gaurdaino sari hau jasotzeko lau hautapen baino ez dira egon Euskal Herrian: elkarteen atalean Ongarri eta Donostiako Argazki Elkarte. Elkarre pribatuen sailean Zarautzeko Photomuseum-a eta argazkilarietan Ramon Serras.

Saria nork jasoko duen ez da udazkenerarte jakingo. Uztailean Estatuko lurralde-Federazioek lau hautagaien artean nori eman botoa erabaki beharko dute. Irailean botuak zenbatu eta Espainiako Konfederazioak botu-kontaketa begi onez ikusten badu, azaroaren 2an ezagutaraziko da zein den puntuaziorik altuena jaso duen hautatua. J. M. Sarasua Ongarriko kideak esan digunez, "badakigu ez garela izango gu sarituak baina nominazio soila demaseko saria izan da guretzat, urtetan egingdako lanaren errekonozimendua baita".



15 urte Ongarri artean

1981ean jaio zen Ongarri Argazki taldea. Ongarri Kultur Elkarte zena, berriz, duela 40 urte sortu zen. Sasoi hartan Lurki Zeramika Taldea, Egur Arte tailerra, Ongarri Zine Kluba eta Ongarri Argazki Taldea biltzen zituen bere baitan. Gaur egun 26 bazkide ditu Argazki taldeak, eta Ramon Ortega da arduraduna. 15 urte hauetan kalitatezko erakusketa ugari antolatu dituzte, nominaziorako funtsezkoa izan dena. Honez gain, ospe handiko egileen argazki bilduma ere badute, besteak beste honako argazkilarari hauenak: Ouka Lele, Toni Catany, Robert Doisneau, Toto Frima, Koldo Chamorro, Alberto Schommer, ... 215 bat guztira. Urte hauetan egin dituzten erakusketa kopurua 78koa izan da.

Euskal Herriko 80 bat hankapalu etorriko dira Elgoibarrera igandean



Kilometroak 96 ekitaldien barruan, Euskal Herriko Hankapaluen Eguna ospatuko da Elgoibarren igandean, hilak 29, goizeko 11,30etatik aurrera. Euskal Herri osoko 8 talde ezberdin elkartuko dira Elgoibarren, antolatzaileren arabera, guztira 80 hankapalu eta 100tik gora lagun bilduko direlarik.

Goizeko 11,30etatik aurrera hankapaluen kalejira eta ikuskizunak hasiko dira. Atxutxiamaike taldeko lau hankapaluk eta Euskal Herriko herri ezberdinetako taldeek har-

tuko dute parte, hala nola, Bergarako Kukuma, Urretxuko Erlanz, Larrabetzuko Koskorak, Bilboko Goloka, Santurtziko Mingotsa, Lekeitioko Aittita Txiki eta Mallabiko Gazte-Alai. Haez gain, Mauxitxa Txaranga, Xaxi Malabarista taldea eta Astondoa piroteknia etxea ere giroa alaitzen saiatuko dira bakoitza bere jardunarekin. Arratsaldeko 6etan, Sebastopoleko Titiriteroen txanda izango da. Bi orduren buruan rokodromoa, trapezioa, alanbrea, panpin tailerra eta bestelako ekintzak egingo dituzte.

IKASBIDAIA Parisera

Ekainaren 14an Elgoibarko Herri Institutuko Ezenarro Eskolatik 70 ikasle (LOGSEko 2. mailakoa) Paris aldera abiatu ziren ikasbidaiaz gozatzeko asmoarekin. Ikasleekin batera bi irakasle joan ziren: Manu Mora eta Arantza Bilbao.

Ibilaldi polita prestatu eta Parisen bertan dauden tokirik ikusgarrienak eta interesgarrienak bisitatu zituzten: Eiffel Dorrea, Louvre, Notre Dame,

Gizonaren Museoa (El Museo del Hombre), Pintoreen auzoa (El Barrio Bohemio de los Pintores), Pompidou zentroa eta beste asko.

Arte monumentu garrantzitsu hauek guztiak ikusteaz gain, Eurodisney parkean egun ederra pasatu zuten. Astebete pasatu zuten Parisen eta gero Poitiers-en gau bat egin ondoren, egun osoa Futuroscopen pasatu zuten. Hilaren 22an bueltatu ziren.



URTZI ALKORTA

- **Lehen ere izan zara Parisen, ez?**

- Bai, baina 7 urtekin edo. Oso txikixa nitzan eta ez nitzan ixa ezertaz enterau.

- **Zer moduz hotela?**

- "Ideal" zakan izena baina nahiko eskasa zan. Toki zentrikoan zaualakuan eta beste puntan topau gendun, afarixa beste jatetxe baten zan, hotela zauan tokitxik autobusian jun bihar ginan...

- **7,30etan gora.**



- Bai, telefonoz deitzen ziguten jaikitzeke esanez. Eta gero egun guztia oinez batera eta bestera.

- **Espero ez zenuen zerbait ikusi al duzu?**

- La Gioconda espero naban kristona izango zala eta nahiko txasko hartu naban.

- **Magikoa al da Paris?**

- Monumentuak eta museuak oso politxak ditxu baina bestela hiri normala da, kotxe eta jende mordua, arraza pilo bat...



LEIRE ZUBIAURRE

- **Selektibitatea amaitu eta Parisa.**

- Bai. Ilusio haundixakin jun ginan.

- **Ikasbidaia kulturala izan da, ez?**

- Bai, lehen ere Torremolinosen egon ginan baina oso diferentia izan zan. Toki batzuk ezagutu genituen baina gehixo izan zan juergia. Parisen dana izan da ikusi, gabian urten ere ez ginan ein.

- **Frantsesa ere praktikatu zenuten.**

- Ez, "merci", "pardon" eta holakuak ikasi ditzugu baina bestela inglezaz moldatu gera. Jende guztiak daki.

- **Garestia atera al zaizue?**

- Biajia, autobusa eta hotela 43.000 pta. eta gero han 15.000 pta gehixo edo. Batzuk gehixo gastau dabe.

- **Gehien gustatu zaizuna?**

- Eurodisney pasada bat iruditxu jata.

Lana

- ❖ HAUR BAT zainduko nuke UZTAILEAN.
☎ 74 17 61
- ❖ Aste bukaeratan SUKALDEAN lan egiteko pertsona bat behar da.
☎ 74 37 71
- ❖ GONAK JOSTEN ditut neurria eta edozein motatako konponketak egiten. Zaharra ekarri eta berdina egingo dizut. ☎ 74 21 40 Konsuelo
- ❖ PERTSONA NAGUSIAK zainduko nituzke gauez. Sanitario auxiliari titulua daukat eta bi urteko esperientzia.
☎ 74 25 17 Amaia
- ❖ UMEAK ZAINDUKO nituzke ekain eta uztailean zehar. ☎ 74 34 99

Salerosketak

- ❖ PIANO BAT saltzen dut. Egoera oso ona.
☎ 74 17 61
- ❖ Haurrentzako MOUNTAIN BIKE salgai. Prezio ona.
☎ 74 10 80 (arratsaldeko 7etatik aurrera)
- ❖ ARRAINDEGIA traspasatzen da Plaza Merkatuan.
☎ 94 683 14 42
- ❖ POSTU BAT traspasatzen da Plaza Merkatuan.
☎ 74 36 38
- ❖ BIGARREN ESKUKO BARADUN TRONBOIA erosiko nuke.
☎ 74 21 86 Mikel
- ❖ JOSTEKO MAKINA estrenatu gabea salgai.
☎ 74 44 43 Mari
- ❖ KRISTALEZKO KONTSOLA bat saltzen dut.
☎ 74 32 51

Agurrak

- ❖ JABI zorionak 30 urte bete dituzulako. Edurneren partez.
- ❖ IRAIZ BARRUTIAri zorionak bihar larunbata 18 urte egingo dituelako. Bere familia eta anaia Asierren partez.
- ❖ IÑIGO PEREZ Arozenari 1.000 kilo zorion gaur 5 urte betetzen dituelako. Etxekoen partez.
- ❖ Eskerrik asko IKAS DODOTIS taldeari 5 urte hauetan pasa ditugun hainbeste momentu atseginengatik. Josebaren partez.
- ❖ Zorionak ENEIDA ETXANIZ eta GORKA SANCHEZI, ekainaren 21ean beraien urtebetetzea izan zelako. Beatriz, Saioa eta Juanen partez.
- ❖ Zorionak uztailearen 22an urteak beteko dituen MIREN GUILLORI eta uztailearen 6an beteko dituen ITZIAR GERRIKAGOITIAri. Beraien gelako guztien partez.
- ❖ Hiru bigotedun, zein baino zein, Pirinioetako errepideetan gora eta behera. 200 km baino gehiago bizikletaetik jaitsi gabe. Eta andrak zain, atetik osorik sartzen ikusteko esperon. Zorionak seiroi!

Etxebizitzak

- ❖ ETXE BAT SALGAI. 4 logela, egongela-jangela, sukalde eta komuna. Prezio interesgarria
☎ 74 25 01
- ❖ PISU BAT alokatzen dut ALCOCEBER- LAS FIARTES hondartzan ondoan. Telebista eta laborarekin. Uztailean eta irailean.
☎ 74 22 08
- ❖ Apartamentua alokatzen dut BENIDORM-en. Hondartzako lehen ilaran. Torre-Levante eraikuntza, piztina, parking, labora eta telebistarekin.
☎ 76 46 61 / 74 16 57
- ❖ ETXE BAT SALGAI SANTA ANA kalean. Hiru gela, egongela, bi komun eta sukalde ditu. Prezio onean.
☎ 86 12 47 / 74 35 86
- ❖ PISUA SALGAI SAN PEDRON. Hiru logela, sukalde-jangela eta bainua.
☎ 74 25 94
- ❖ PISU BAT SALGAI. Berritua. UBITARTE 3, 3D.
☎ 74 34 86 (7etatik aurrera)
- ❖ Etxebizitza alokatzen dut JAKAN UDAn. ☎ 74 15 22

Partikularrak

- ❖ Uztailean FRANTZESEKO PARTIKULARRAK emango didan norbait behar dut.
☎ 74 02 13
- ❖ KLASE PARTIKULARRAK ematen ditut udan. OHO, BBB, REM eta ingelesa.
☎ 74 15 82 Eduardo
- ❖ KLASE PARTIKULARRAK ematen ditut udan.
☎ 74 01 48 Alazne
- ❖ Tituludun irakasleak PIANOKO KLASEAK ematen ditu udako lanetan laguntzeko eta iraileko examinak prestatzeko. Baita, armonia, transporte eta repentizazioko klaseak.
☎ 74 04 11 Silbia
- ❖ Enpresarialesen lizentziatuak KONTABILITATE eta BALANTZE ANALISIAri buruzko partikularrak emango ditu udan Eibarren.
☎ 12 16 38 Ainhoa
- ❖ MARRAZKETA teknikoko partikularrak ematen ditut.
☎ 12 16 38 Asier

Bestelakoak

- ❖ CARITASEk 90eko bi ohe eta bi erropa armairu behar ditu.
☎ 74 15 09 / 74 12 57
- ❖ NESKA BAT behar dugu Bilbon pisua osatzeko.
☎ 94-476 09 97

Garajeak

- ❖ Marradun garaje bat alokatzen da pista beltzean.
☎ 74 01 77
- ❖ Garaje bat saltzen da King-Kongen.
☎ 76 17 95
- ❖ Marradun garajea alokatzen da Urasandin.
☎ 74 31 07

PREMAZKO TELEFONOAK



OSASUNA

Anbulategia:
Larrialdiak.....461111
Txanda hartzeko.....743354
Planning-a742950
Alkoholiko Anonimoak..740385
D.Y.A (anbulantzia) ..464622
Gurutze Gorria.....743864
Mendaroko Ospitalea756264
Drogomenpeketasun Z..741008
Odol Emaileak.....743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442
PESA (Eibar).....102131
Taxi geltokia.....740898

UDALA

Euskara Zerbitzua744366
Udal Kirol Patronatua744415
Kultura Zerbitzua742158
Mendaroko Udala756100
Ongizate zerbitzua ...743736
Udaletxea741050
Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142
Elgoibarko Izarra.....741626
Kontsumo Bulegoa ...743088
Liburutegia743525
Musika Eskola742145
Mintxeta744315
Parrokia740842
Polikiroldegia741361
Postetxea.....741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296
Zaharren Biltokia740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola.....74 21 41
Herri Eskola.....74 08 79
I.M.H.74 41 32
Institutua74 02 67
Ikastola74 44 41
L.H.I.....74 44 80
Pilar Ikastetxea74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12
El Diario Vasco74 40 73
El Correo Español ...74 10 82
Egin.....10 84 21
Zazpiki irratia74 34 74

OSTIRALA

22,30 MUSIKA SEFARDI KONTZERTUA

Abeslaria: Julia León
✓ Herriko Antzokian
Antolatzailea: Kutxa

LARUNBATA

18,00 BOLO ETA TOKA TXAPELKETA

✓ San Pedron
Antolatzailea: Kilometroak 96

19,30-22,15 ZINEA

“Jaula de grillos”

22,30 BANDAREN KONTZERTUA

✓ Plaza Handiko arkupeetan

IGANDEA

11,30 HANKAPALU EGUNA. KALEJIRA

Antolatzailea: Kilometroak 96

18,00 SEBASTOPOLEKO TITIRITEROAK

✓ Plaza Handian
Antolatzailea: Kilometroak 96

18,30 GELATXOREKIN DANTZALDIA

✓ Plaza Handian

19,30-22,15 ZINEA

“Jaula de grillos”

ASTELEHENA

9,30 UDALEKU IREKIAK

OHOk 1. eta 2. mailakoak
✓ Plaza Handian
Antolatzailea: AtxutxiamaiKa
Begirale Taldea

10,00 UDALEKU IREKIAK

Eskolaurrekoak
✓ Plaza Handian
Antolatzailea: AtxutxiamaiKa
Begirale Taldea

22,15 ZINEA

“Jaula de grillos”

ASTEARTEA

22,00 ZINEA

“Jaula de grillos”

OSTIRALA

22,15 ZINEA

“Coacción a un jurado”

txandak

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
29, larunbata:	Bidasolo	Bidasolo
30, igandea:	Bidasolo	Bidasolo
1, astelehena:	Yudego	Escala
2, asteartea:	Yudego	Escala
3, asteazkena:	Yudego	Escala
4, osteguna:	Yudego	Escala
5, ostirala:	Yudego	Escala

OKINDEGIA:

30, igandea: FOTERO

San Pedroko jaiak

OSTIRALA, 28

San Pedro bezpera

16,00 Kanpai jotzea eta txafligu jaurtiketa.

21,00 Bertso afaria Jon Sarasua, Angel M. Peñagarikano eta Aitor Mendiluzerekin. Gai jartzailea: German Meabebasterretxea.

Ondoren, Agurtzane Elustondo eta Andonirekin musika jarduna.

LARUNBATA, 29

San Pedro Eguna

11,00 Prozesioa eta meza nagusia.

14,30 Bazkaria Balzola trikitilariekin.

17,00 Umeen jolasak.

18,00 Bolo eta toka txapelketa.

22,00 Idi demak: Zestuako Lopene, Berritxuko Artadi-Alde eta Bilelako Lopategi.

Ordu berean, bolo txapelketa Goizaldean, txokolatada.

IGANDEA, 30

10,30 Meza

Ondoren, ahari jokoa eta Arkaitz Egaña herrijasotzailea.

Jarraian, pilota partidua

18,00 Herri Kirolak: Zelai eta Atxa herrijasotzen eta aizkoran Erasun eta Mugerza.

Ondoren, txinga lehiaketa emakume eta gizonezkoentzako.

Amaieran janariz eta edariz beteriko orgatila zozketatuko da.

Egun osoan zehar Olloki eta Ziolar trikitilariak.

Zinea

Una jaula de grillos

Zuzendaria: Armand Goldman
Antzezleak: Robin Williams, Gene Hackman, Nathan Lane.


Val, ikasle gazte bat da da. Val-ek emaztegaiarekin ezkontzeko erabakia jakinarazten dio bere aitari. Emaztegaia senadore ultrakontserbatzaile baten alaba da. Senadoreak bere alabaren senarra izango dena eta honen familia ezagutu nahi ditu. Baina puntu honetan arazoak sortuko dira. Izan ere, Val-en aita homosexualen night-club



ASTIGARRAGA *garajea*

San Frantzisko, 53 - Tel. 74 01 86

Deskubritu nolakoa den uda errobera gainean



*Ez al da bizikletaz
aldatzeko ordua?*



OSASUNDEGIA

Urkizu pasealekua, 11.
(Orbeako dorrea, lehenengo solairua).
Tfnoak: (943) 12 02 00 - 12 02 04

- | | |
|----------------------------|--------------------------|
| 1- Alergologia | 9- Barne medizina |
| 2- Kardiologia | 10- Ortodontzia |
| 3- Zirugia | 11- Otorrinolaringologia |
| 4- Dermatologia | 12- Pediatria |
| 5- Dietetika eta Nutrizioa | 13- Psikiatria |
| 6- Foniatria | 14- Radiologia |
| 7- Ginekologia | 15- Traumatologia |
| 8- Laborategia | 16- Urologia |

GARAY



HARATEGIA
URDAITEGIA

San Frantzisko 9 - Tel. 74 13 92 - ELGOIBAR



UZTAILEKO ESKAINTZA BEREZIA

TXAHAL BULARRA 490 pta/Kg	2. mailako HARAGI-XERRA 1.090 pta/Kg	Atzeko solomoko TXULETA 1.490 pta/Kg	HEGALAK SAIHESKIAK 590 pta/Kg
ROOSBEEFa ENTRECOTa 1.790 pta/Kg	Primerako xerra KONTRA-SORBALDA 1.290 pta/Kg	Hezur gabeko FALDA EGOSIA-GISATUA 690 pta/Kg	Primerako xerra BABILLA etab... 1.390 pta/Kg
LEPOA GISATUA 790 pta/Kg	NAFAR ORTUKO PRODUKTUETAN ESKAINTZA BEREZIAK ★★★ ETXEAN EGINDAKO JAKIAK: - KROKETAK - PIPAR BETEAK - TRIPAKIAK TOMATETAN - MINGAIN GISATUA - PINTXO MORUNOAK - SAN JAKOBOAK - INDIOILAR ROLLITOAK - ALBONDIGAK - HARAGI GISATUA - .ETAB...		Primerako xerra RABADILLA 1.490 pta/Kg
ZANKARROIA KARRILERAK,... 890 pta/Kg			Aurreko solomoko TXULETA 1.390 pta/Kg